

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Astelehena, 2011ko maiatzaren 23a. VIII. urtea. 2.230. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Bilduk 126 zinegotzi lortu ditu Tolosaldean eta Leitzaldean

Koalizioak 12.946 bozka eskuratu ditu, EAJ alderdiak 23 ordezkariz izango ditu, eta Aralar da hurrengoa 8 zinegotzirekin **6**

Bilduk 8 zinegotzi izango ditu Tolosako Udalean

Independienteek, EAK eta Alternatibak 3.812 bozka eskuratu dituzte, eta EAJ, aldiz, 3.651 **5**

Leitzan ere Bilduk lortu ditu bozka gehien

Bederatzi zinegotzi lortu dituzte; UPNk 130 bozka jasota zinegotzi bat izango dueta DNEk **1 5**

↓ Udal eta Foru Hauteskundeak 2011

Herria	EAJ	Bildu	PSE-EE	PP	Aralar	EB-Berdeak	HI!	Hautetsi zerrenda 1	Hautetsi zerrenda 2
Abaltzisketa	-	-	-	1	0	-	-	152 ⁽¹⁾	7
Aduna	-	-	-	12	0	-	-	-	-
Albiztur	-	-	9	0	1	0	117	7	-
Alegia	173	2	638	7	35	0	26	0	-
Alkiza	-	-	-	0	0	0	-	164 ⁽²⁾	7
Altzo	-	-	169	7	0	0	2	0	-
Amezketza	-	-	416	6	3	0	1	0	-
Anoeta	222	2	595	7	39	0	43	0	-
Areso	-	-	-	-	-	-	-	147 ⁽⁴⁾	7
Asteasu	76	1	-	0	0	0	0	-	-
Baliarrain	-	-	-	-	0	0	0	-	-
Belauntza	-	-	-	1	0	2	0	-	-
Berastegi	-	-	473	9	23	0	6	0	-
Berrobi	-	-	216	4	0	0	5	0	-
Bidegoian	-	-	185	4	0	0	4	0	-
Elduain	-	-	103	5	-	0	0	-	-
Gaztelu	-	-	66	3	-	0	0	-	-
Hernialde	-	-	-	-	1	0	0	-	-
Ibarra	452	2	1.331	8	176	1	71	0	-
Ikaztegieta	98	3	160	4	1	0	0	0	-
Iruia	120	1	489	8	54	0	30	0	-
Larraul	-	-	-	-	0	0	0	-	-
Leaburu	-	-	137	4	-	0	0	-	-
Leizta	-	-	1.283	9	-	130 ⁽¹⁾	1	-	-
Lizartza	-	-	329	7	-	37	0	-	-
Orendain	-	-	66	4	-	0	0	-	-
Orexa	-	-	83	5	-	0	0	-	-
Tolosa	3.651	7	3.812	8	590	1	462	0	-
Villabona	654	3	1.587	9	197	1	127	0	-
Zizurkil	297	2	808	8	125	1	58	0	-
Guztira	5.743	23	12.946	126	1.253	4	1.019	1	-

(1) Herritarrak; (2) Alkizako Abertzale Ekzertiarak; (3) Amezketarron Elkar Lanean; (4) Areso Eralkiz; (5) Asteasu Batuz; (6) Bai Asteasuri; (7) Herritarrak; (8) Belauntza Berreginez; (9) Denok Bat; (10) Giroa; (11) Goiz-Bini; (12) Udaberri Taldea; (13) Hernialdeko Herritarrak; (14) Larraul Aurrera; (15) Herri Aukera; (16) Bide Berriak; (17) Itzairer; (18) DNE alderdia; (19) Ertza; (20) Batzaleku; (*) Bozka kopuru hau UPN alderdiari dagokio, eta ez PPri





Eskerrik asko Tolosaldea!

Zuri esker aldaketa dator!

Euskal Herri askea egiten ari gara!

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**↓ 2011**

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Bildu	3.812	8
EAJ	3.651	7
PSE-EE	590	1
Aralar	480	1
PP	462	0
EB	205	0
Hamaikabat	81	0

↓ 2007

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EAJ	3.203	9
EAE-ANV	1.947	-
EA	988	3
PSE-EE	746	2
EB-Aralar	704	2
PP	577	1

↓ Udal Hauteskundeak

2011	EAJ	Bildu	Aralar	PSE-EE	PP	EB	Hamaikabat	Gainerakoak
Igarondo	243	335	40	52	31	34	5	19
Gorosabel	790	986	129	166	75	59	27	44
Jubilatuak	886	639	74	92	171	38	18	50
Kulturetxea	614	629	80	86	67	17	11	35
Berazubi	476	450	72	85	38	25	7	42
Amaroz	281	347	37	63	27	13	5	9
Izaskun	361	426	48	46	53	19	8	30
GUZTIRA	3.651	3.812	480	590	462	205	81	229

161 bozka gehiagorekin, Bilduk lortu du gehiengoa Tolosan

Udal korporazioa Bilduko 8 hautetsik, EAJko 7k, PSE-EEko hautetsi batek, eta Aralarreko beste batek osatuko dute

PPk eta EBk eserleku bana galdu dute, eta udal ordezkariarik gabe geratu dira

Itzea Urkizu

Eskualdeko gainerako herrietan baino beranduago kontatu zituz-

ten atzo, Tolosako bozkek, eta gaueko 22:30ak aldera, Bilduk 3.812 bozka jaso zituela jakin zuten herritarrek, gehiengoa lor-

tuz. 8 eserleku beteko dituzte koalizioko hautetsiek.

Bozka gehien jaso ez dituen arren, EAJ alderdiak inoiz izan dituen emaitzarik onenak izan ditu bozka kopuruari dagokionez, 3.651 bozkarekin.



Aurreko legealdian zituen 9 zinegotzietatik, 2 galdu dituzte jeltzaleek, eta 7 eserleku beteko dituzte.

PSE-EEK, bere aldetik, 590 bozka jaso ditu, eta eserleku bat galdu du udalean; zinegotzi bat ba-

karrik izango dute sozialistek, datorren legealdian. Aralarrek, aurreko legealdian izan duen eserlekua mantenduko du, 480 bozka jasota.

PPk, aldiz, ez du ordezkariarik izango datozen lau urteetan Tolosako Udalean; 462 bozkarekin, ez du hautetsirik udalean izatea lortu.

Egoera bertsuan suertatu da Ezker Batua. 205 bozka jaso ditu Tolosan, eta eserlekua galdu egin du, beraz.

2007ko hautetsiak**2011ko hautetsiak**

Hamaikabat alderdiak, 81 bozkarekin, ez du ordezkariarik izango udalean.

✉ tolosa@hitza.info

↓ Hautetsiak

■ **Ibai Iriarte**
(Bildu)



■ **Lore Agirre**
(Bildu)



■ **Asier De Los Rios**
(Bildu)



■ **Edurne Mendia**
(Bildu)



■ **Pedro Manuel Etxabe**
(Bildu)



■ **Mikel Arreseigor**
(Bildu)



■ **Rosa Maria Urkola**
(Bildu)



■ **Jon Koldobika Arsuaga**
(Bildu)



■ **Jokin Bildarratz**
(EAJ)



■ **Olatz Peon**
(EAJ)



■ **Jokin Azkue**
(EAJ)



■ **Nerea Letamendia**
(EAJ)



■ **Jon Aldazabal**
(EAJ)



■ **Nuria Carbonell**
(EAJ)



■ **Jose Andueza**
(EAJ)



■ **Jose Ignacio Asensio**
(PSE-EE)



■ **Iñaki Irazabalbeitia**
(Aralar)

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**Ibai Iriarte** • Bilduko alkategaia

«Herriaren eskutik goazen bitartean garaipena gurea izango da»

Asier Imaz Tolosa

Zorionsu, irrifarrez, ezker ukabila goraka jasoz... baina aldi berean, burua hotz mantendu nahian aurkitzen zen Ibai Iriarte 23:00ak inguruan. Bilduk 3.812 bozka bildu zituela zioten albistegiek, hau da, 8 hautetsi. Zerkausia eztanda batean lehertu da.

Zorionak.

Zorionak denei: zorionak Tolosako herriari; zorionak honetan sinetsi dugun guztioi, eta lana bihartik aurrera hasten da.

Dirudienez, alkatetza ere gertu duzue.

Ikusi egin beharko da, orain berotan horrelako irakurketak egitea agian azkarregi da, bihar lasaitasunez irakurriko ditugu emaitza guztiak. Lehenengo indarra gara; zinegotzi bat gehiago atera dugu; bozka gehiago lortu ditugu eta hori da garrantzitsua.

Baina egia ere bada, euforia ikusten dela Zerkausian.

Herri honek gehiegi sufritu du; eta egoera honetan denok dauka-



A. IMAZ

gu disfrutatzeko eskubidea, eta bada garaia herri hau beste prespektiba edo beste bide batean sartzeko. Horregatik dago jendetia pozik, baina hau hasiera bat da, lehenengo urrats sendo bat.

Denen aurrean bota duzun hitzalditxoan, zerrendakideez lagundurik, herritarren udaletxea izan behar duela aipatu duzu behin eta berriz. Herririk gabe ez gara ezer. Bilduk erakutsi du, herri presioaren bi-

dez, estatuko epaitegi baten erabakia atzera bota daitekeela, eta argi daukaguna hori da: herriaren eskutik goazen bitartean, garaipena gurea izango dela, bitartean ez.

Anjel Yañezek (PP) zigorbotoa aipatu du. Zuk horrelakorik sumatu al duzu?

Ez dut uste EAJk bozketan beharakea egin duenik. Niren ustez, guk sortu dugun desberdinen arteko elkarlanak jendearen, gizartearen onarpena izan duela. Gizarteak hori eskatzen duela iruditzen zaigu, eta gu bide horretan gaude, eta bidea egiten ari gara. Nire ustez zentzu horretan bozkatu digutela herritarrek.

Eskualdeko emaitzak ere pixkanaka-pixkanaka jarraitzen ariku zara gau guztian zehar, zer iruditzen zaizkizu?

Izugarria. Gau ahaztezina. Baina benetan lan handia daukagu eskualdean egiteko; Tolosa buru bezala, herriekin harremanetan, herriak Tolosarekiko harremanetan... eskualdean garapen handia dago egiteko, mila gaietan: nekazariaren biziraupena sustatzeko, mugikortasuna dela-eta, ingurugiroa... mila gauza dauzkagu egiteko.

Eskaintza eta mezua.

Herritarrei, presoei, iheslariei, euskal gizarteari, Euskal Herriari, lanean urteetan dirauten herriei... herriari.

Eta mezua? Etorkizunean Euskal Herri askea, Tolosa askea, nahi baldin badugu lana bihartik aurrera hasten dela, eta denok garaia beharrezko.

Jokin Bildarratz • EAJren alkategaia

«Tolosak oso argi azaldu du bere borondatea, orain hau gestionatu beharko da»



ITZEA URKIZU

A. Imaz Tolosa

EAJren jarraitzaileak Tolosako Batzokian elkartu ziren hauteskunde gauean. Gipuzkoa osoan Bilduk lortu dituen emaitzak osan izan direla zioten. Tolosan berriz, bozketan goraka egin arren, aurpegiek ez zuten alaitasun handiegirik adierazten. Egoerari aurre eginaz, Jokin Bildarratzek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN hitz egiteko tartea hartu zuen.

Ezustekoa izan al da lortu duzuen emaitza?


Ezuste handia, batik bat Gipuzkoakoa, orokorra, eta baita Tolosakoa ere. Bagenekien Bildu oso indartsu zetoirela baina ez genuen pentsatzen horrelako indarrarekin izango zela.

Yañezek aipatu duenez, Udalak kudeaketa ona erakutsi du azken urteetan, baina jendeak zigortzera bozkatu omen du, dirudienez. Zein da

zure iritzia. Zigor bozkarik ikusi al duzu?

Ez, guztiz aurkakoa. Bi mezu botako nituzke hemen. Azken finean guk inoiz atera dugun emaitzarik onena lortu dugu. Bipolarizazio handia egon da, eta 175 bozken alde dago Bildu eta gure artean. 400dik gora bozka igo gara. Horre-

gatik bi hausnarketa egiten ditugu. Ibairekin egon naiz hizketan, zoriondu dut, eta erreflexio hau egin diot: Tolosak apustu bat egin du Bildurekin, baina bakea eta bide demokratikoen aldeko apustua izan da, hori dela bide bakarra azpimarratu dute, beste guztiak alboratu egin behar direla behin betiko. 3804 boto lortu dituzte, Lizarra-Garazi garaian baino boto gehiago. Eta bigarren hausnarketa. Nik behintzat sentitzen dut azken zortzi urte hauetan eginiko lanaren nolabaiteko eskertza edo onarpen bat gizartearen aldetik. Bi bide horiek aipatuko nituzke. Nik uste Tolosak oso argi azaldu duela bere borondatea eta orain hau gestionatu beharko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**22**

Bilduk 9 eta EAJk 3 zinegotzi eskuratu ditu

Galder Azkue izango da alkate berria; lehen balorazioan «oso gustura» agertu dira Bilduko ordezkariak

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Galder Azkue buru duen Bildu koalizioak «datu historikoak» eskuratu ditu udal hauteskundeetan. Bilduk bederatzi zinegotzi izango ditu, EAJk hiru zinegotzi eta PSE-EEk zinegotzi bat. Ezker Batuak eta Alderdi Popularrak ez dute zinegotzirik eskuratu.

2007. urteko Udal Hauteskundeekin alderatuz gero, PSE-EEk zinegotzi bakarrari eutsi dio, EAJk, bi zinegotzi galdu ditu eta Ezker Batuak, zuen zinegotzi bakarra galdu egi du. EAE-ANVk sei zinegotzi eskuratu zituen.

«Herritarrei zorionak»

Datu onak jasotzeko esperantzak zituzten Bildu osatzen duten hautagaiek, baina Galder Azkue alkatearen hitzetan «izugarria» izan da, eta «oso gustura» agertu da. «Inork espero ez zituen emai-

tzak eskuratu ditugu» azaldu du. Oraindik sinistu ezinik zegoela «historikotzat» jo ditu lortu dituzten emaitzak.


Herritarrei «zorionak» eman nahi izan dizkie Azkuek, eman eta erakutsi duten «erantzunarengatik».



Billabonatarak bozka ematen Olaederra kiroldegian. M.G.

↓ **Emaitzak**

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Bildu	1.587	9
EAJ	654	3
PSE-EE	197	1
PP	127	0
Ezker Batua	81	0
Zuriak	98	
Baliogabeak	32	

↓ **Hautetsiak**■ **Galder Azkue**
(Bildu)■ **Rosa Maria Arregi**
(Bildu)■ **Urko Arin**
(Bildu)■ **Nora Urbizu**
(Bildu)■ **Ignazio Urreta**
(Bildu)■ **Gorka Lizaso**
(Bildu)■ **Laura Santos**
(Bildu)■ **Juan Luis Irazusta**
(Bildu)■ **Concepcion Arozena**
(Bildu)■ **Nagore Puyadena**
(EAJ)■ **Ibon Ariznabarreta**
(EAJ)■ **Xabier Azkolain**
(EAJ)■ **Maria Luisa Arija**
(PSE-EE)

638 bozka bilduz lortu dute alkatetza, Alegian

Unai Iraola izango da hurrengo lau urteetan alkatea; zazpi zinegotzi eskuratu ditu, eta EAJk bi zinegotzi izango ditu

E. Maiz Alegia

Bildu koalizioa izan da gehiengo osoa lortuz bozka gehien jaso dituen, eta ondorioz, Unai Iraola

izango da hurrengo lau urteetako alkatea. Atzetik, sei zinegotzi izango ditu lagun, eta EAJko bi zinegotzirekin osatuko dute udalbatza.

Zalantza guztien gainetik, «oso gustura» agertu da Iraola. «Duela lau urte ez zen EAJrik aurkeztu eta ez genekien zein izango zen herriaren erantzuna».

2007. urteko Udal Hauteskundeetan, EAE-ANVk zortzi zinegotzi eskuratu zituen eta PSE-EEk

zinegotzi bat. EAJrik ez zen aurkeztu.

«Bihartik aurrera benetako lana»

Emaitzak jakin eta minutu gutxira, «pozik eta ederki» esanez agertu da Iraola. Duela aste batzuk honelakorik imajinatuko ez bazuen ere, «ilusioz eta gogoz» hartuko du lan berria. «Benetan bihartik aurrera hasiko da benetako lana» azpimarratu du.



Unai Iraola alkate berria. E. MAIZ

↓ **Emaitzak**

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Bildu	638	7
EAJ	173	2
PSE-EE	35	0
PP	26	0
Zuriak	25	
Baliogabeak	10	

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

■ Izen-abizenak:

■ NA:

■ Lanbidea:

■ Jaioteguna:

■ Helbidea:

■ Herria:

■ P.K.:

■ Tel.:

■ Posta elektronikoa:

■ Kontu zenbakia:

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

Emaitza historikoa lortu du Bilduk Ibarra eta «oso gustura» daude

Bilduk gehiengo absolutua lortu du 11 zinegotzitik 8 eskuratu; EAJk 2 eta PSE-EEk 1 lortu dituzte

M. Ugartemendia Ibarra

Bilduk alde handiarekin irabazi ditu udal hauteskundeak Ibarra. Guztira 1331 bozka lortu ditu, eta horrek 8 zinegotzi ematen dizkio; gauzak honela, gehiengo absolutua eskuratu du. EAJk 452 bozka eta 2 zinegotzi lor-

↓ Emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Bildu	1331	8
EAJ	452	2
PSE-EE	176	1
HI!	80	0
PP	71	0

tu ditu; PSE-EEk 176 bozka eta eserleku 1; PPK 71 bozka eta eserlekurik ez; eta Hamaikabatek 80 bozka eta eserlekurik ez.

Emaitza hauen arabera, Bilduk gehiengo osoa lortu du, eta Jesus Peñagarikano izango da Ibarra

alkatea datozen lau urteetan, beste 7 zinegotziren babesarekin.

Orain dela 4 urte, EAE-ANV izan zen lehenengo indarra Ibarra; 710 bozka lortu zituen zehazki. Datu horien arabera EAE-ANVek bost zinegotzi lortu zituen, baina Espainiako Auzitegi Gorenak zerrenda baliogabetu zituenez, EAJko Txelo Romeo izan zen Ibarra alkate. EAJk 405 bozka lortu zituen, eta EAJk 384. Honenbestez, launa zinegotzi eskuratu zituzten. PSE-EEk 233 bozka eta bi zinegotzi eskuratu zituen; EB eta Aralarrek 134 bozka eta zinegotzi bat lortu zituen.



Jesus Peñagarikano, bere bozka ematen. MAIER UGARTEMENDIA

↓ Hautetsiak



■ **Jesus Peñagarikano**
(Bildu)



■ **Oihane Sarasola**
(Bildu)



■ **Iñaki Mujika**
(Bildu)



■ **Laida Zubillaga**
(Bildu)



■ **Mikel Agirrezabala**
(Bildu)



■ **Naiara Lopetegi**
(Bildu)



■ **Eugenio Lopetegi**
(Bildu)



■ **Itziar Saizar**
(Bildu)



■ **Txelo Romeo**
(EAJ)



■ **Itziar Jauregi**
(EAJ)



■ **Aitor Gonzalez**
(PSE-EE)

Emaitzak jaso ondoren, Jesus Peñagarikano, Bilduko alkategaia emaitzen balorazio bat egin du. Bereziki «jendearen parte hartzea» azpimarratu nahi izan du, eta jendeak aldaketak auki izan duenean «aldaketaren alde» egin duela esan du.

Emaitzaren «osogustura» azaldu zen Peñagarikano. Sei zinegotzi lortzea espero zuten, baina «inondik inora ez genuen espero zortzikoa». Herritarrei «emandako konfiantza» eskertu nahi izan die. Gainera, ziur dago «botoa emandako askok gero laguntza emango digutela, lau urte hauetan gauzak beste modu batean egiteko», eta alde horretatik lasai daudela baieztatu du. Hauteskundeetan izandako parte hartzea, gerora ere «aktiboa» izango dela uste du Peñagarikanok, eta

beraiek ere parte hartze hori benetakoa izango dela uste du. Gehiengo absolutua izan arren, «biderik ez dela inoiz itxiko» adierazi du. «Herritar batzuek beste alderdi batzuei botoa eman dietela», eta beraiek «ibartar guztientzat gobernatu behar dutela» esan du. «Lau urte hauetan ez zaio inori aterik itxiko, inoiz».

Txelo Romeok, Ibarra alkategaia, emaitzen balorazio «positibo» bat egin du. Mantentzea lortu dutela, eta «botoren bat gehiago ere» lortu dutela esan du. «Herritarren erabakia hau» izan dela, eta herritarrek beraien erabakia hartu «ahal» izan dutela esan du. Horrez gain, Peñagarikano garaipenarengatik «zoriondu» du. Hortik aurrera, herritarrek izan ziren Ibarra kaleetan jaun eta jabe.

Bilduk erraz irabazi du eta gehiengo osoa eskuratu du

Bilduk 9 zinegotzi lortu ditu, eta Oier Eizmendi alkategaia balorazio «oso positiboa» egin du

M. Ugartemendia Leiza

Bilduk gehiengo absolutuarekin irabazi ditu hauteskunde hauek Leiza; gehiengo absolutuarekin, eta bozetan alde handiarekin. Guztira 1283 boto eta 9 zinegotzi eskuratu ditu Bilduk, 183 bozka eta zinegotzi bat UPNk, eta 130 bozka eta zinegotzi bat DNEk.

Orain dela 4 urte, aldiz, EAE-

ANV izan zen lehen indarra 851 bozka eta 6 zinegotzirekin. EAJ 417 bozka eta 3 zinegotzi, UPNk 309 bozka eta 2 zinegotzi, eta Aralarrek 138 bozka eta zinegotzirik ez.

«Herriak hitz egin du»

Oier Eizmendik, Bilduko alkategaia, balorazio «oso positiboa» egin du, emaitzak jaso bezain laster. «Herriak hitz egin duela, garbi ikusi dela» esan du. 11 zinegotzitatik 9 beraienak izatea, eta beste alderdiek bana eskuratzeko, «oso gustura» egoteko modukoa dela adierazi du.

Irabaziko zutela «pentsatzen» zuten, baina horrelako emaitzak

↓ Emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Bildu	1283	9
Itzair	0	0
UPN	130	1
DNE	183	1

lortzea «neurri batean ez genuen espero».

Gehiengo absolutuak ere «la-saitasuna eta indarra» ematen dieten aurrera jarraitzeko. Herriaren «babesa» daukatela, herriaren gehiengo absolutua beraien «alde» dagoela, eta beraien proiektuarekin «bat eginda» daudela adierazi du.



Oier Eizmendi, Bilduko hautagaia bozkatzeko. M. UGARTEMENDIA

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



Bildu koalizioak eskuratu ditu boto gehien bi eskualdeetan

Bilduk 12.946 bozka eta 126 zinegotzi eskuratu ditu; bigarren indarra EAJ da, 5.743 bozka eta 23 zinegotzirekin

Gipuzkoan Bilduk irabazi du; Nafarroan, %82 zenbatuta, UPN zihoan aurrean

Imanol Garcia

Bildu izan da Tolosaldean eta Leitzaldean irabazle nagusia. Guztira 12.946 bozka eskuratu ditu eta aurkeztu den 20 herrietan lortu du gehiengoa. Horietatik, Tolosan ez beste herri guztietan

gehiengo absolutua lortu du, eta beraz, alkatetza ziurtatuta du udalerri horietan. Guztira 126 zinegotzi lortu ditu.

Bigarren indarra EAJ izan da. 5.743 bozka jaso ditu aurkeztu den bederatzi herrietan eta horietan 23 zinegotzi eskuratu ditu.



Herriarrak bozkatzeko, atzo, Tolosan. I. GARCIA

Ibarrako eta Zizurkilgo alkateak galdu ditu, bi herri horietan Bilduk gehiengo absolutua lortu baitu.

Bozka kopuruei begiratuta, PSE-EE izan da hirugarren indarra 1.253 bozkekin eta lau zinegotzirekin. PPk 1.019 bozka eta zinegotzi bat eskuratu ditu. Aralarrek 597 bozka jaso ditu eta guztira zortzi zinegotzi lortu ditu, horietatik 7 Albizturren.

Gipuzkoa eta Nafarroa

Gipuzkoan lehen indarra Bildu izango da. Ia %100 zenbatuta, 22 diputatu eskuratu ditu Batzar Nagusietan. Nafarroan UPN zihoan aurretik, 19 eserleku jasoz %82 zenbatuta zegoenean.

Nafarroako hauteskundeetan, Leitzan Bilduk 1.085 boto jaso ditu, NaBaik 270, UPNk 134 eta DNEk 132. Aresori dagokionez, Bilduk 86 boto jaso ditu, NaBaik 32, UPNk 20, CDNk 9 eta PPk 8.

Parte-hartze handiagatik, PPk ez du lortu alkatetza



Arantxa Aburuza, atzo, bozkatzeko. I. GARCIA

Bozka zuriak 287 izan dira eta PPren aldeko bozkek 12; beraz, alderdi popularrak bozken %4a lortu du

I. Garcia Aduna

PPk ez du alkatetza lortu Adunan. 12 bozka eskuratu ditu alderdi popularrak, baina 287 bozka zuri izan direnez, guztira bozken %4a lortu du. Hau da, ordezkartza lortzeko beharrezkoa den

%5era ez da iritsi. Arantxa Aburuza Adunako alkatea pozik agertu da udal hauteskundeetan egon den parte-hartzeagatik: «Oso gustura gaude izan diren bozka zuriengatik. Izugarritzko parte-hartzea izan da».

Aurreko hauteskundeetan PPk bozka bakarra lortu zuen eta oraingoetan 12. Igoera horrek «norbaitek haserre egon daitekeela esan dezake», azaldu du Aburuza, «baina jende askoren babesa sentitu dugu. Gainera, bozken zenbaketa egiterakoan herritar asko hurbildu dira udaletxera».

↓ **Emaitzak**

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
PP	12	0
Botozuriak	287	-

Parte-hartzea nabarmen handitu da. Izan ere, orain lau urte EAE-ANVK 159 bozka lortu zituen eta PPk bozka bakarra.

Hemendik aurrera, sei hilabetez egungo udalak jarraituko du. Behin Batzar Nagusiak osatzen denean, ikusi beharko da zer adosten duten udalarekin.

Bilduk gehiengoa eskuratu du zazpi zinegotzi lortuz

595 bozka jaso ditu Bilduk; EAJ 222 bozka eskuratu ditu eta aurretik zituen bi zinegotziak mantendu

I. Garcia Anoeta

Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Anoetan. 595 bozka jaso ditu eta horrek zazpi zinegotzi eman dizkio. EAJk 222 bozka eskuratu ditu eta aurreko legealdian zituen bi zinegotziak mantendu ditu.

Peio Estanga Bilduko alkategaiak balantze «guztiz positiboa» egin du. «Ikusten da jendearen

nahia nondik jo duen, eta ilusioak nondik jo duen». Estangak gaineratu duenez, «orain ardura hartu beharra dago». Datuei dagokionez, hauteskundearen aurretik sei zinegotzi lortuko zituztela esan zuen eta aurreikusitako emaitzak hobetu egin dira. «Uste baino emaitza hobekoak lortu ditugu», azaldu du.

Kepa De La Iglesia EAJko hautagaiak abstentzioaren datua nabarmendu du: «%3 igo da abstentzioa. Gure datuak aurreko hauteskundeekin alderatuta, mantendu egin da. Horrek adierazten du bozka kopurua finkatuta dugula herrian». Bilduk zer emaitza aterako zituen erreferen-

↓ **Emaitzak**

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Bildu	595	7
EAJ	222	2
PSE-EE	39	0
PP	43	0

tzia garbirik ez zegoela dio: «Earekin batera joan izan gara hauteskundeetan. Orain Bildu koalizioan dago. Ikusi beharko da zer ibilbide egiten duen koalizioak». De La Iglesia «gustura» azaldu da emaitzekin: «Partaidetza jaitsi egin da eta gure bozka kopurua ere pixka bat jaitsi egin da. Dena normal joan da eta ez da gutxi».



Anoetarrek Herri Ikastolan eman zuten botoa. I. GARCIA

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**Aitor Sarasola** ▶
Alegiako alkatea

«Hauteskunde hauek ez dira erabat normalizatuak»

Imanol Garcia Alegia

Sortu ez legeztatzeak, Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritar hautagai izateko aukerarik gabe utzi ditu. Eskualdean, Aduna, Anoeta, Alegia, Amasa-Villabona, Ikaztegieta, Leitza eta Orexa herrietako alkate eta zinegotziek ezin izan dute berriz zerrenda batean aurkeztu. Azken legealdian Alegiako alkate izan den Aitor Sarasolak egoera horren inguruko hausnarketa egin du.

Hainbat alkate eta zinegotzi ezin izan duzue aurkeztu hauteskunde hauetan. Zer iritzi duzu?

Ezin aurkezteak erakusten du oraindik jende guztien eskubideak ez daudela bermatuta. Berrogeitik gora alkate ezin izan gara berriro aurkeztu hauteskunde hauetan.

Sorturen legeztatzea epaitegietan

dago oraindik. Nola ikusten duzu auzi horren etorkizuna?

Bilduren auziarekin aurrekaria gertatu da. Sorturen abokatuak azaldu duenez, Bildu legeko izateko erabili diren argudio berdinak erabiliko dira Sorturen auzian. Hori ikusita, pentsatzekoa da Sortu ere legeztatuko dutela. Eta hortik aurrera ikusi egin beharko da zer gertatzen den.

Gizartean zenbateraino uste duzu ezagutzen dela zenbait alkatek hauteskunde hauetan ezin aurkeztu izatea?

Batzuk badakite zer prozesu eman den: EAE-ANV ilegalizatu egin zela, Sorturen erregistroarekin zer gertatu den... Beste jende asko ez dira jakitun. Kalean gertatu zait jendeak galdetzea: Zer, berriz aurkezteko asmorik bai? Batzuk ez dira oso kontziente. Bildu legeztatuta da eta oso ondo dago, baina esan behar da normalizazio



A. IMAZ

falta bat badagoela, hain justu ezker abertzaleak ezin izan duelako ez kanpaina egin ez hauteskunde-etan egon. Jendeak normalizat josten dituen hauteskunde hauek ez dira erabat normalizatuak ezker abertzalea bera bezala ez dagoelako hauteskunde hauetan.

EAE-ANV bezala aurkeztu zineten aurreko hauteskundeetan, eta gero alderdia legez kanporatu zuten. Zertan eragin du horrek?

Hasieratik eragin du. Beti egon gara begirada guztien erdian. EAE-ANV ilegalizatu zuten, eta guk karguetan jarraitu genuen, baina atzean inongo alderdirik izan gabe, horrek ekartzen dituen ondorioekin: egitura izan gabe eta lan egiterakoan babesik gabe. Horrek zailtasunak ekarri ditu, baina saiatu gara gauzak ahal den ondoen egiten. Izandako zailtasunak ikusita, ni gustura nago egindako lanarekin.

Irudia ▶

ETXERATEKIN BAT EGINEZ

Euskal preso eta iheslariaren etxeratzearen aldeko pegatinarekin bozkatzeko eskatu zuen Etxeratek, eta hainbat herritarrek horrela egin zuten atzokoan. Alderdi politikoei, berriz, «euskal preso politikoei pairatzen dituzten eskubide urraketa andanak behin betiko atzean uzteko hartu beharreko konpromisoak» eskatu zizkien. A.I.

Irudia ▶ **Lizartza**

AZKEN EGUNAK ZINTZILIK

Espainiako banderaren azken egunak iritsi dira Lizartzan. Hauteskundeak igaro ondoren, udalbatza berria egongo da Lizartzan, eta bandera espainiarra kenduko dute. Regina Otaolak orde, bandera berak kenduko duela onartu du. Espainiako ikurra, ekarri bezala eramango du beraz PPren ordezkariak. A. IMAZ

Irudia ▶

EHNA-REKIN BOZKATZEN

Atzo, eskualdeko hauteslekuetan, Euskal Herriko Nortasun Agiriarekin bozka eman zuten hainbat herritarrek. Irudian, Antonio Maria Labaien kultur etxeko hauteslekuan, EHNA erabiliz bozkatu zuen gizonezkoa ageri da. I. URKIZU

Iker Market • Izaskun auzoko hauteslekuko mahaikidea

«Langabezian dagoenari aukera eman beharko liokete»

Asier Imaz Tolosa

Igandea eta hauteskunde eguna izan arren, hainbat herritarri lan egitea tokatu zitzaion atzokoan. Iker Market horietako bat izan zen; Tolosako Izaskun auzoko mahaiaren inguruan pasa zuen eguna. Ordulariari begiratu eta oraindik 14:00ak ziren.

Hauteskunde batzuetan mahaiaren egotea tokatu zaizun lehen aldia al da?

Bai, horrela da.

Zer moduz joan da goiza?

Nahiko ondo; jende dezentek bozkatu du eta...

Pixka bat luze egiten ari zaizu, ezta?

Oso. Egia esan oso luze.

Mahaiaren egotea tokatu zitzaizula enteratu zinenen, zer pentsatu zenuen?

Egun bat izorratu zidatela.

Zein lan egiten duzu hemen?



Xabier Lazkano, Iker Market eta Pedro Etxezarreta. A. IMAZ

Herritarrak etortzen direnean bozka ematera, zentsoan gertatzen diren edo ez begiratzen dut. **Gaur lan egiteagatik ordaina baduzue, ezta?**

Bihar lehenengo bost orduetan jai izango genuke, eta gero, uste

dut, 62 euro ematen dituztela.

Esperientzia gomendagarria iruditzen al zaizu?

Ez. Niretzako langabezian dagoen jendea jarri beharko lukete. Gutxienez ea hemen egon nahi duten galdetu beharko litzaieke.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika. **Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info. **Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



Atzoko hauteskunde eguna gorabehera handirik gabekoa izan zen. Tolosaldean 35.890 herritarrek izan dute bozkatzeko aukera, eta Areso eta Leitza 2.648k.

Lau urte barru arte

Rebeka Calvo

Gorabehera handiegirik gabe igaro zen atzoko hauteskunde eguna. Nabarmendu beharreko kontu bakarra Ibarran gertatu zen. San Inazio auzoko hauteslekuko giltza ez zuten aurkitzen, eta azkenean Ertzaintzak atea bota behar izan zuen sartu eta dena prestatu ahal izateko.

Gainontzeko hauteslekuak 09:00etarako zabaldu zituzten, eta 20:00ak arte egon ziren zabalik. Egun osoan zehar gazte zein hel-

duak euren bozka eskubidea gauzatu zuten. Tolosaldean guztira 35.890 herritarrek izan zuten bozkatzeko aukera, eta Leitza zein Areson 2.648 bizilagunek. Horietatik gutxi batzuk atzerritarrak izango ziren, behar bada, baina ez gehiegi, izan ere, hamar herrialdeetako nazionalitatea dutenek dute bozkatzeko aukera. Horregatik badira zenbait herritar euren bozkatzeko aukera atzerritarrei eman zietenak, irudian ikusi daitekeen bezala. Leaburuko bizilagun honek saharar bati utzi zion bozka ematen.



Marimi Ugaldel Irurako alkatea bozkatzeko, eta Balarraingoa, Martzelino Dorronsoro. R.C.-I.G.



Leaburutar honek saharar bati utzi zion bere bozka emateko aukera. HITZA



Gorako irudian aresoar bat bozkatzeko, eta beheran berastegitar bat. M.U.

